



2000KO URRIAREN 26KO
OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi milako urriaren hogeita seian, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Igor Sarriegi Zumarraga, Inazio Estenso-ro Eskisabel, Gorka Lamy Intsausti, Arantxa Zumelaga Agirre, Julio Ibañez Urteaga, Jon Agirre Garmendia, Urko Irastortza Aldanondo eta Jose Antonio Dopazo Martin.

Irantzu Amundarain Irizar eta Jose Luis Otamendi Romero zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurutuzak dihardu.

I.- AURREKO AKTAK.-

Alkateak bilkurari hasera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten dira 2000ko uztailaren 18an eta irailaren 28an egindako bilkuretako aktak.

Dopazo zinegotziak (PSE-EE) esaten du bera iraileko osoko bilkuran ez zela egon eta akta horri dagokionean abstenitu egingo dela, bestean ez daukala inolako arazorik.

Hau horrela 2000ko uztailaren 18ko akta aho batez onartzen da eta irailaren 28koa Dopazoren abstentzioarekin, biak ere idatzita dauden moduan.

II.- ALKATETZAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzako Ebazpenen berri emten du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- 4/2000 ERREGE LEGE-DEKRETUA ONESTEARI DAGOKION MOZIOA.-

Alkateak esaten du hasera batean PSE-EEren aldetik mozio bat aurkeztu zela 4/2000 Errege Lege-Dekretuaren inguruan eta mozio hau alderdi politikoei bidali zitzaiela. Gaineratzen du geroztik, EUDELe onartu dituen puntuak direla eta, beste mozio bat adostu dela eta eguneko gai zerrendarekin batera bidali dena dela.

Dopazo zinegotziak (PSE-EE) esaten du azken hau PNV-EArekin adostutako mozioa dela eta bestalde baita EUDELen onartutakoarekin bat datorrela. Jarraian bere alderdiak aurkeztutako mozioaren azalpena egiten du. Mozioak honela dio:

LAZKAOKO UDALEKO TALDE SOZIALISTAK OSOKO BILKURARI ONDOKO MOZIOA AURKEZTU DIO, EKAINAREN 23KO 4/2000 ERREGE LEGE-DEKRETUA, INMOBILIARIA-ETA GARRAIO-SEKTOREA LIBERALIZATZEKO PRESAKO NEURRIEI BURUZKOA, ETA

...///...



...///...

EKAINAREN 23KO 6/2000 ERREGE LEGE-DEKRETUA, ONDASUN ETA ZERBITZUETAKO MERKATUAN LEHIA BIZIAGOTZEKO PRESAKO NEURRIEI BURUZKOA, ONESTEARI DAGOKIONEZ.

1.- Aurrekariak

Erabilgarri dagoen lurra merkatzeko premia nahiz hiritar guztiei etxebizitza lortzea eskaintza eskuragarri batekin bermatzeko beharra, hirigintzako antzinako arazoak izateaz gain, politika publiko guztiek dituzten konstante unibertsalak dira.

Gure herrialdeko egoera sozio-ekonomikoaren antzekoa bizi duten herrialdeek bi arazo horiei aurre egiteko teknika zehatzak eta hirigintzako jarduketa-modu jakin batzuk erabili dituzte eta erabiltzen dituzte. Herrialde bakoitzean jarduketa horiek bertako kultur, politika-, administrazio-, zuzenbide- eta ekonomia-sistemaren zati koherenteak dira, bai eta herrialde bakoitza mendez mendez osatu, zehaztu, trebatu eta zertutako multzo gisa bereizten duten baliabideen erabilgarritasunen zati koherenteak ere.

Irtenbidea, beraz, ez dator neurri zorrotzen bidetik, aitzitik, testuinguru bakoitzerako teknika zehatzen bidetik dator, alegia herrialde bakoitzaren historiari eta bertako merkatu inmobiliarioaren funtzionamenduari buruzko hausnarketaren ondorioa izango diren teknika zehatzen bidetik.

Ekainaren 7ko 5/1996 Errege Lege Dekretuak, lurzorua gaia liberalizatzeko neurriei buruzkoak, inolako azalpenik gabe eten zuen ordura arte iraun zuen eztabaida, ez baitzuen betetzen zehazki gai horretarako osatutako Adituen Batzordeak egindako gomendioetatik bat bera ere.

Lurzoruari dagokionez, 1996-2000 legegintzaldiko gertaera gogoangarria, ordea, Auzitegi Konstituzionalak 1997ko martxoaren 20an eman zuen epaia izan zen. Honen arabera Auzitegiak eskumen-arazoa zela-eta konstituzio kontrako deklaratu zituen uztailaren 25eko 8/1990 Legearen artikulua gehienak, ekainaren 26ko 1/1992 Errege Lege Dekretuak onartutako Lurzorua Erregimenari eta Hiri Antolamenduari buruzko Legearen testu bateratuan jasota zeudenak.

Auzitegi Konstituzionalak erabaki zuen lurraldearen hirigintza eta antolamenduari buruzko eskumena Autonomia Erkidegoei bakarrik dagokiela eta Estatuko Legea ez dela aplikazio subsidiarioa. Beraz, konstituzioaren arabera estatuko legegileak ez du eskumenik lurraldearen hirigintzari eta antolamenduari dagokionez, zentzu hertsian, baina epaiak dioenez, badu eskumena ondokoetarako:

- estatuko lurralde osoan lurzorua jabetza-eskubidearen eginkizunetan berdintasuna bermatzeko duten oinarriko baldintzak arautzeko.
- hirigintzan eragina duten beste gai batzuk arautzeko, adibidez, nahitaezko desjabetzapena, balorazioak, administrazio publikoen erantzukizuna edo administrazio-prozedura erkidea.

Egoera honetan, Gorte Nagusiek 6/1998 Legea, Lurzoruari eta Balorazioei buruzkoa onartu

...///...



...///...

zuten, Auzitegi Konstituzionalaren arabera Estatuari dagozkion gai horiek arautzeko xedez. Lege hori ondoko asmoarekin sortu zen: "lurzoruaren eskaintza handitzea erraztea, oraindik hiri-prozesuan sartu ez den lurzoru guztia, gordetzeko arrazoirik biltzen ez duena, hiritartzeko gai gisa hartu ahal izatea ahalbidetuz. Hori guztia lurraldeko eta sektoreko planeamenduaren eta legeriaren arabera, bere ingurumenari, paisajeari, historiari, arkeologiari, zientziari edo kulturari dagozkien balioak, bere nekazaritza-, basozaintza- eta abeltzaintza-aberastasuna edo bestelako aberastasunak, edo hiri-garapenerako desegokitzapen justifikatua kontuan hartuta. Aintzat hartu behar da, era berean, lurzoruaren merkatuaren erreforma, honen eskaintza areagotuko duen liberalizazio handiago baten zentzuan, hain beharrezkoa den Espainiako ekonomiaren egitura-erreformaren zati bat dela eta, izan ere, estatuko legegileak horretarako eskumenak ditu, Espainiako Konstituzioaren 149, 1, 13. artikulua esleitzen dizkiolako."

Asmo hauek argi eta garbi agertzen ziren Gorte Nagusietara igorritako lege-proiektuan, baina nahasirik geratu dira legearen amaierako testuan. Horrela bada, legearen 9. artikulua ezartzen du lurzoru hiritarrezinak izango direla, lege honen ondorioetarako, ondoko baldintzetako bat betetzen duten lur-sailak.

- Paisajeari, historiari, arkeologiari, zientziari, ingurumenari edo kulturari dagozkien beren balioak kontuan hartuta, sektoreko planeamenduan ziurtatutako arrisku naturalak kontuan hartuta, edo jabari publikoaren babeserako muga edo zortasun batzuei loturik dagoela kontuan hartuta, lurralde antolamenduko edo sektorearen legeriako planen arabera beren transformazioarekiko bateraezina den babes-erregimen berezi baten menpe daudelako mota honen barruan sartu behar izatea.
- Nekazaritzari, basozaintzari eta abeltzaintzari dagokienez dituzten balioengatik edo beren aberastasun naturalengatik, bai eta hiri-garapen baterako desegokitzat hartzen dituen beste batzuegatik, planeamendu orokorrak aurreko puntuan adierazitako balioak gordetzea beharrezkotzat jotzea.

Artikulu honen arabera, Plan Orokorrak lurzoru hiritarrezina deklaratzeko ahalmen handia izaten jarraitu du, deklarazioak zehatza eta planeamenduan justifikatua izan behar duela ulertuta. Antolamendu Plan Orokor berrietan deklarazio garrantzitsua ez da izan, beraz, lurzoru hiritargarriari dagokiona, lurzoru hiritarrezinari dagokiona baizik.

2.-Ekainaren 7ko 5/1996 Errege Lege Dekretuaren eta 6/1998 Legearen emaitzak.

Errege Lege Dekretuaren eta Lurzoruari eta Balorazioei buruzko legeak berak zuten helburua lortzeko neurriak, alegia lurzoru hiritartua gehituz etxebizitzaren prezioa merkatzea lortzeko neurriak desegokiak zirela bere garaian ohartarazi genuenoi denborak arrazoia eman digu.

Lurzoru hiritargarri programatu eta ez programatuaren arteko bereizketa kendu eta bi lurzoru-kategoriak hiritargarri izeneko bakar batean bateratzearen ondorioz, hiri askotan, udalerrri osoa liberalizatu da. Neurri horrek lurzoru batean espekulazioaren aldetik urteak zeramatzaten jabeek bakarrik egin die mesede.

Aprobetxamendu-lagapenak murriztean Udalek beren ondarearen ehuneko hogeita hamahiruko murrizketa jasan dute eta, ondorioz, zuzkidurarik gabeko esparruetan ekipamendutara-

...///...

...///...

ko lurzoria lortzea eta etxebizitza publikoetarako lurzoria lortzea eragotzi du. Lagapenak %10ekoak bakarrik izatean, jabeek hauen monetarizazioa aukeratu dute eta, horrela, etxebizitza babestuetarako lurzoru publikoaren lorpena minimoen azpitik geratu da.

Jabeak jabetzeko gai den aprobetxamendu generikoak zalantza asko sortu ditu eta hirigintza-jarduera segurtasun-falta larri batez hornitu du juridikoki. Segurtasun-falta horrek eragin larria du sektorean enpresa-jarduera bultzatzeko beharrezkoa den ziurtasun ekonomikoan.

Lurzoruaren heltze-prozesua luzea da eta ez da nabarmen murriztu hemen adierazi ditugun onartutako azken arauekin, baina horien eragina berehalakoa izatea espero ez zenez, beren eraginkortasuna 1999. urtean nabaritu behar zela esan dezakegu. Horrela bada, urte horretan etxebizitzaren prezioak, gutxienez, dezelerazio-sintomak erakutsi behar zituen. Halere, guztiz kontrakoa gertatu da: etxebizitzaren prezioak, estatu osoan, urtearteko ondoko igoera izan zuen 1999ko martxotik 2000ko martxora bitarteko aldian: %13 etxebizitza berrien kasuan eta % 14 etxebizitza erabilien kasuan. Azken bi urteetan sustapen berrien eskaintza neurri handi batean handitu da, baina horrek ez du prezioak merkatzea eragin. Hortaz, berriz pentsatu behar da etxebizitzaren prezioa zein modutan egituratzen den: eskaintza handitzen da, eskaera murrizten da finantziario-baldintzak gogortzen direlako (etxebizitza bat erosteko batez besteko esfortzua familia-errentaren % 33,5en kokatu zen 1999ko azken hiruhilekoan) eta etxebizitzaren prezioa, ez jaisteaz gain, igo egiten da.

3.- 4/2000 Errege Lege Dekretu berriaren analisi formala.

Hemen aztertuko dugun xedapenaren edukia, jakina, hiria zentzuz antolatzeke ahalmenaren barruan, tokiko udalbatzek hiri-bizikidetzak jasagarri baten eredia ezartzeko duten jardueraren esparruari dagokio.

Gauzak horrela, araua udalen eta probintzien ordezkari den elkarte-organismoaren iritzia ezagutu gabe onartu eta argitaratzeaz gain (FEMP delakoa –gai hau ez da sartu Batzorde Betearazlearen edo Kontseilu Federalaren inolako gai-zerrendan), are larriagoa eta juridikoki gaitzesgarriagoa dena, Toki Administrazioaren Batzorde Nazionalaren iritzia entzun gabe onartu eta argitaratu da eta txosten hori, Udal Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen Legearen 118. artikulua adierazten duenez, nahitaezkoa da. Ondorioz, era berean ez da bete 1958ko Administrazio Prozedurari buruzko Legearen 130.3 artikulua; izan ere, lege honek aurreikusten duenaren arabera, proiektu batek aldeko irizpena jaso behar du xedapen batek hala ezartzen duenean eta ez da inolako berezitasunik aurreikusten premiazko kasuetarako, legeak berak beste txosten-mota batzuetarako ezartzen dituen arren. Prozedura ez betetzearen ondorio juridikoa erabat deuseztatzea da, Administrazio publikoetako Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Arruntaren Legearen 62.2 artikulua jasota duenaren arabera.

4.- 4/2000 Errege Lege Dekretuaren analisi materiala.

Jada adierazi dugu hemen aztertzen ari garen arauak Udalen jarduketa-esparru materialari eragiten diola. Horrez gain esan dugu lurraldea antolatzeke hauek zuten ahalmena Lurzoruari eta Balorazioei buruzko Legearen 9. artikuluko azken intzisoan kokatuta zegoela eta honek "hiri-garapenerako desegokitzen hartzen zen lurzoria..." hiritarrezintzat hartzea ahalbidetzen zuela. Errege Lege Dekretutik intziso hau kentzen bada eta, honekin batera, partiku-

...///...



...///...

larrek edota edozein administrazio publikok, dagokion garapen-planeamendua onartzeko eskumena duen ala ez kontuan hartu gabe (15.2 art.), sustatzaile bihurtzeko gaitasuna badute, antolamendu-ahalmen hura inolako edukirik gabe geratzen da, jakina, Konstituzioan eta Autonomia Lokalari buruzko Europako Gutunean bermatuta dagoen printzipioa hautsiz. Beraz, Toki Erakundeek 4/2000 Errege Lege Dekretua inpugna dezakete Auzitegi Konstituzionalan, autonomia hori errespetatzen ez duelako, Auzitegi Konstituzionalaren urriaren 3ko 2/1979 Lege Organikoren 75 bis artikulua, apirilaren 21eko 7/1999 Lege Organikoak emandako testuan, aurreikusitakoaren arabera.

5.- Ondorioak.

1.- 4/2000 Errege Lege Dekretuak, Inmobiliaria eta Garraio Sektorearen liberalizazioari buruzkoak, berarekin dakar apirilaren 13ko 6/1998 Legearen, Lurzoruaren eta Balorazioen Erregimenari buruzkoaren 9., 15. eta 16. artikuluen erreforma; gainera, bere edukiak muga handiak ezartzen dizkie udalek hirigintzan dituzten eskumenei: alde batetik, lurzoru hiritarrezina kalifikatzeko toki erakundeen diskrezionalitate-maila murrizten duenez, dagokion lurraldearen antolamenduari buruz udalak hartu beharreko erabakiak mugatzen ditu eta, bestetik, hirigintza-planen sustapena, prestaketa, formulazioa eta tramitazioa mugatzen ditu, planeamendu hori behin betiko onartu arte edozein administrazio edo ekimen pribatuk lurzoruaren transformazioa susta dezakeelako. Administrazioaren isiltasun positiboak sei hilabete epea izango du eta, era horretan, Udalei gainerako eragile publiko edo pribatuek duten erabaki-maila geratuko zaie.

2.- 6/2000 Errege Dekretuak, Ondasunetako merkatan lehia biziagotzeko presako neurriei buruzkoak, halaber, barne hartzen ditu udal-ekintzari jarritako hainbat mugapen, 3. artikuluan eta Lehen Xedapen Iragankorrean ondokoa xedatzean: merkataritzako zentro handiek beren ekipamenduen artean, gutxienez, gasolina-zerbitzugune bat izango dutela eta merkataritzako establezimendu hauentzako udal-lizentziak jarduera horretarako baimenaren emakida inplizituki jasotzen duela. Jada funtzionatzen ari diren zentroyen kasuan, halako bat eraiki eta abiarazteko baimena eskatuz gero, berrogeita bost eguneko epean administrazioaren isiltasuna izan bada, baimen hori emana izan dela ulertuko da. Eskumen horiek indargabetu egiten dute Udal Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen Legearen 25.2.d) artikulua eta lege hau geratzen duen legeriak hirigintza-gaietan udalei esleitutako eskumena.

3.- 4/2000 Errege Lege Dekretuak etxebizitzaren egoeraren analisia kantitateari bakarrik dagokion arazoa balitz bezala planteatzen du. Diskurtso politikoan ohikoa den hurbiltze-simplifikazio honek auresuposatzen du merkatu "antolatu" batean berezko oreka dagoela beharrraren, produkzioaren eta kontsumoaren artean. Nabarmena denez, ez da hala gertatzen etxebizitzak bezala neurri batean eskari malgua ez duten produktuen kasuan eta lurzoruarena bezalako merkatu zorrotz batean.

Alderantziz, etxebizitzaren arazoa gizarte-ikuspegi batetik aztertu behar da eta Konstituzioak berak ere gizarte-arazotzat hartzen du, hiritar guztiek etxebizitza duin eta egokia izatea bermatzen saiatzeko.

Orain arte adierazitako guztia kontuan harturik, Lazkaoko Udaleko Osoko Bilkurak ondoko MOZIOA onartu du:

...///...

...///...

1. Ez dugu onartzen 4/2000 Errege Lege Dekretuaren, Inmobiliaria- eta garraio-sektorea liberalizatzeko presako neurriei buruzkoaren, eta 6/2000 Errege Lege Dekretuaren, Ondasun eta zerbitzuetako merkatuan lehia biziagotzeko presako neurriei buruzkoaren onespina, hauetatik ateratzen diren xedapenen aplikazioak autonomia lokala hausten dutelako eta udalen gobernu-ekintzaren oinarritzko muinean eragina dutelako.
2. Estatuko Gobernuari adierazten diogu 4/2000 eta 6/000 Errege Lege Dekretuen argitalpena eta ondoriozko indarrean sartzea ez ditugula onartzen, Estatuko Administrazioaren eta Tokiko Administrazioaren arteko lankidetzak eta koordinazio-erakunde iraunkorren, hau da, Toki Administrazioaren Batzorde Nazionalean kontsultatu eta eztabaidatu ez direlako.
3. Gure herrian bizi-kalitatea hobetzeko lan egiten jarraitzeko konpromisoa hartu dugula adierazten dugu, 4/2000 eta 6/2000 dekretuetan jasotako neurriak hiriaren antolamendu egokia burutzeko oztopo handia izan arren.
4. Hiritarrei gure kezka jakinarazi nahi diegu neurri hauen aplikazioak ingurumenean nahiz udalerrietako eguneroko bizitzan konpondu ezinezko kalteak eragin ditzakeelako eta onuradun bakarrak lurzoruaren jabe eta sustatzaile handiak izango direlako; hauek gainera beren irabaziak gehitu ahal izango dituzte espekulazioaren birtartez. Horrela deuseztatu egingo da udal demokratikoei hiriak razionalizatzeko egin zuten ahalegina; izan ere, udal horiek bere garaian aurkitu zuten kaosa Gobernuak orain bultzatu nahi duenaren antzeko egoera batek eragina zen.
5. Hiritarrei etxebizitza lortzea errazteko, hirigintzari buruzko legerian derrigorrez egin behar diren erreformak adosteko xedez, hiru administrazio-mailen artean negoziaketa-mahai bat irekitzea eskatzen dugu, hori da eta, hain zuzen, gure Konstituzioaren printzipio gidaria 47. artikuluan xedatzen duenaren arabera: "Espainiar guztiek dute etxebizitza duin eta egoki bat izateko eskubidea. Botere publikoek eskubide hori gauzatzeko beharrezkoak diren baldintzak sustatuko dituzte eta dagozkien arauak ezarriko dituzte, espekulazioa saihesteko xedez lurzoruaren erabilera guztien interesaren arabera arautuz". Helburu hori lortzeko, besteak beste, honako neurri hauek hartzea proposatzen dugu: babes ofizialeko eta prezio tasatuko etxebizitzaren sustapena bultzatzea, hiritartzeko eta birgatzeko agente publikoak suspertzea, balorazioei buruzko araudiaren erreforma, hiriguneak birgaitzea etxebizitzari dagokionez politika jasangarri baterako ezinbesteko elementu gisa, etxebizitza publiko guztietan BEZ % 7tik % 4ra murriztea eta etxebizitzentzako laguntzak dirulaguntza gisa arautzea eta, beraz, zergetatik salbuetsirik geratzea eta ondare-gehitzea izateari uztea.
6. Diputatuen Kongresuko, Senatuko eta Euskal Autonomia Erkidegoko Legebiltzarreko taldeei, bai eta FEMP-ari eta EUDELEko Udalen Elkarteari ere, eskatzen diegu indarrean dagoen lege- eta konstituzio-esparruan ezarritako autonomia lokala eta udal-eskumenak defendatzeko legezko ekintza egokiei ekiteko.

UDALBATZARRAREN ERABAKIA, AUZITEGI KONSTITUZIONALAREN LEGE ORGANIKOAREN 2.1.D) bis ARTIKULUAN AURREIKUSITAKO JARDUNBIDEA HASTEKOA.

...///...



...///...

Auzitegi Konstituzionalaren Lege Organikoaren 2.1.d) bis artikulua dionaren indarrez Lazkaoko Udalaren osoko bilkurak, Udaltzaga zuzenbidez osatzen duten kideen gehiengo absolutuaz, ERABAKI DU:

Aipatutako Lege Organikoaren 75 ter artikuluan aurreikusitako jardunbidea hastea eta, Konstituzioak bermatzen duen autonomia lokalean eragina izan dezaketenez, Ekainaren 23ko 4/2000 Errege Lege Dekretuari, Inmobiliaria- eta garraio-sektorea liberalizatzeko presako neurri buruzkoari, eta ekainaren 23ko 6/2000 Errege Lege Dekretuari, Ondasun eta zerbitzuetako merkatuan lehia biziagotzeko presako neurri buruzkoari dagokienez, Estatuko Batzordeak bere irizpena emateko eskatzea, ondoren, Auzitegi Konstituzionalean autonomia lokala defendatzeko gatazka bat jartzeko asmoz.

Erabaki hau gauzatzeko eta Estatuko Batzordeari eskaera egiteko eskuordetza eta baita Udaltzaren ordezkaritza ere Antoni Siurana i Zaragoza alkate txit gorenari ematea.

Erabaki hau Lleidako alkate txit gorenari helaraztea."

Ondoren Alkateak, PSE-EErekin adostuta aurkeztu den mozioaren azalpena egiten du. Mozioak honela dio:

"HIGIEZINEN SEKTOREA LIBERALIZATZEKO ETA ONDASUN ETA ZERBITZUEN MERKATUETAN LEHIA AREAGOTZEKO NEURRI BURUZKO AKORDIOA

AURREKARIAK

Higiezin sektorea eta garraioak liberalizatzeko presako neurri buruzko ekainaren 23ko 4/2000 Errege Lege Dekretuak aldaketa garrantzitsuak sartzen ditu Lurzoruaren erregimen eta balorazioei buruzko apirilaren 13ko 6/1998 Legearen 9 eta 16. artikuluetan. Izan ere, aldaketak garrantzi handikoak dira udalaren hirigintza-kudeaketarako eta arlo honetako toki-eskumenetarako.

Horrela, bada, 9. artikuluari dagokionez, 2. idatz-zatian ezabatu egin da plangintza orokorrak "hiri-garapenerako desegokitzen jotzen dituen" lurak lurzoru urbanizaezin gisa sailkatzeko aukera eta mantendu egin da 1. idatz-zatiko balioengatik eta nekazaritza, basozaintza eta abeltzaintzarako duten balioengatik edo beren aberastasun naturalengatik zaindu beharrezkotzat jotzen dituenen aipamena.

Bestalde, lurzoru urbanizagarriaren jabeek beren eskubidea erabiltzeko oinarritzko arau buruzko 16. artikulua aldaketak, 1 eta 3. idatz-zatiei dagokienez, ekimen pribatuak lurzoru urbanizagarriaren transformazioa berak formulatutako mugaketa edo plangintzako proiektu baten arabera sustatzeko aukera sartzen du. Bertan ezartzen denez, hiri-plangintza garatzeko tresna behin betiko onartuko da (administrazioaren isiltasun positiboa) sei hilabeteko epea igarotzen denean, betiere jendaurreko erakustaldiaren izapidea egin bada; izapide hau plangintza sustatzen duenaren ekimenez egin ahal izango da.

Azkenik, Ondasun eta zerbitzuen merkatuetan lehia areagotzeko presako neurri buruzko ekainaren 23ko 6/2000 Errege Lege Dekretuak 3. artikulua eta lehen xedapen iragankorrean xedatzen duenez, merkataritza-gune handiek gutxienez ibilgailuak petrolio-produktuez hor-

...///...

...///...

nitzeko instalazio bat izango dute beren ekipamenduen artean eta saltoki hauei udal-lizentziak emateak jarduera honetarako lizentzia ematea ekarriko du berekin. Saltoki handiak abian badira eta instalazioak eraikitzeke eta abiarazteko udal-lizentzia eskatzen badute, administrazioaren isiltasun bidez emandakotzat joko dira berrogeita bost egunen buruan.

GOGOETAK

A) TRESNA ARAU-EMAILE DESEGOKIA.

Lege-dekretua, Gobernuak emandako behin-behineko legegintza-xedapena, ez da arestian adierazitako neurriak arautzeko tresna arau-emaile egokia, beharra ohiz kanpoko eta presakoa denean bakarrik erabiltzeko baita, gobernuaren berehalako ekintza behar denean beraz.

4/2000 Errege Lege Dekretuaren Arrazoen Azalpenaren irakurketa bera aski esplizitua da lege-dekretua tresna arau-emaile egokia dela justifikatuz lortu nahi denaren kontraesana ulertzeko. Izan ere, adierazitako lege-dekretuak higiezin merkatuaren zurruntasunei aurre egitea du helburu, bere iritziz lurzoru urbanizagarri urriak baldintzatuta baitago, eta guztiok dakigu merkatu hori askoz ere konplexuagoa dela eta lurzoruaren prezioan nekez kontrola daitezkeen faktore askok dutela eragina. Beraz, diagnostikoa ez da egokia eta, dudarik gabe, lege-dekretua emateko ohiz kanpoko eta presako beharraren arrazoiak ez daude justifikatuta, are gehiago kontuan hartzen badugu berariazko arau iragankorrik aurreikusi ez denez gero 6/1998 Legean bertan xedatutakoa aplikatu beharko litzatekeela eta hemen adierazten denez, lurzoruaren sailkapenaren egokitzapena plangintza berrikusten denean egin beharko da eta, areago, izapidetzen ari den plangintza sailkapen horietara egokitu gabe izapidetzen jarraitu ahal izango da.

B) TOKI-ERAKUNDEEI KONTSULTATU GABE.

Adierazitako lege-dekretuek zuzeneko eragina dute toki-erakundeen interesetan eta, horregatik, bere garaian toki-erakundeei kontsulta egin behar zitzairen modu egokian, hala onartzen baita barne-zuzenbidearen parte den Toki Autonomiaren Europako Gutunean. Guk dakigunez bederen, ez dira formazko bide egokiak erabili toki-erakundeen ordezkarien iritzia zein den jakiteko. Euskal udalerrietan behintzat ez da hala egin.

C) TOKI-AUTONOMIA ETA -ESKUMENAK URRATZEA.

Higiezin sektorea eta garraioak liberalizatzeko eta ondasun eta zerbitzuen merkatuetan lehia areagotzeko presako neurriek nabarmen urratzen dute toki-autonomia. Autonomia hau toki-erakundeek gai publikoen zati garrantzitsu bat antolatu eta kudeatzeko eskubide eta ahalmen eraginkorra dela ulertuta, legegileak errespetatu behar duen erakunde-bermea da. Inolako zalantzarik gabe, udal-elkartearen autonomiari datxezkion interesen artean hirigintza dago, antolamendu, kudeaketa, burutzapen eta diziplinaren alderdiei dagokien zentzu zaballean ulertua.

4/2000 Lege Dekretuaren bitartez egindako aldaketak nabarmen urrituko ditu toki-korporazioen ahalmen horiek. Hala, "eta hiri-garapenerako desegokitzat jotzen dituen bestelakoak" azken adierazpena ezabatzearen ondorioz, babes bereziko arrazoiak daudenean bakarrik sailkatu ahal izango da lurzoru urbanizaezin gisa. Honek funtsean urrituko ditu udalen hiri-

...///...



...///...

plangintza eta -antolamenduko ahalmenak, toki-erakundeen gobernu-ekintzak ezin izango baitu aukeratzeko duen hirigintza- eta lurralde-garapeneko eredia definitu. Herri honetan lurralde-plangintzako tresnatzat aukeratu diren Lurraldearen Zatik Planak formulatzeko politikak daukan antolatzeke ahalmena urritu egingo da eta lurzoru urbanizaezinaren jabe diren partikularren ekintzak zalantzan jarriko du. Horrez gain, toki-korporazioak bultzatzen ari diren hirigintza- eta ingurumen-arloko garapen jasangarriko politikarekin kontraesanean dago.

Beste horrenbeste esan daiteke 6/2000 Errege Lege Dekretuaren 3. artikuluari eta lehen xedapen iragankorrari buruz, nabarmen indargabetzen baitituzte legeriak gai honetan udalei ematen dizkien eskumenak. Bereziki adierazgarria da dagoeneko abian diren saltoki handiei aplikatzekoa izango den lehen xedapen iragankorra. Izan ere, saltoki hauek, bere garaian irekitzeko lizentzia eman zitzaientean, ez zuten gasolina-zerbitzugerik instalatzeko aukera kontuan hartzen. Orain nahikoa da beren ekipamenduen artean mota honetako instalazio bat ezartzea eta dagozkion udal-lizentziak administrazioaren isiltasun positibo bidez emandakotzat jotzen dira 45 eguneko epe laburrean (ezinezkoa da epe hau betetzea gure autonomia-erkidegoko legerian mota honetako lizentzien izapideak egiteko ezarrita dauden epeak kontuan hartzen baditugu; gainera, legeria honek udalaz bestelako organoen txostenak eduki beharra ezartzen du eta, areago, ingurumenaren aldetik sentikorrek diren eremuetan ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioa eskatzen du gasolina-zerbitzugerak instalatu ahal izateko). Eta gutxi balitz bezala, instalazioek okupatzen duten lekua ez da bolumen eraikigarri gisa zenbatuko, ezta okupazio gisa ere; honela, udalak bere garaian indarreko legeriaren arabera hartu zuen erabakia berrikusten da. Eta erabaki honek hirigintza-aprobetxamendua kalkulatzeko arauz gainera, sistema orokorrekiko konexioa, ibilgailu-trafikorako sarbideak, trafikoaren intentsitatea, hirigintza-erabileren bateragarritasuna eta abar hartu zituen kontuan.

Azken batean, hartutako neurriek funtsezko eragina dute hirigintzaren oinarritzko eduki edo guneari dagozkion udal-eskumenetan eta, horrenbestez, nabarmen erasaten diote udal-autonomiari.

D) LORTU NAHI DEN HELBURUAREN ETA HARTUTAKO NEURRIEN ARTEKO KONTRAESANA.

4/2000 Errege Lege Dekretuaren Arrazoiaren Azalpenak adierazten du eskariaren igoera handiaren eta lurzoruaren prezioak (era berean lurzoru urbanizagarri urriak baldintzatuta) higiezin-produktuetan duen eraginaren ondorioz merkatuan antzeman diren zurruntasunak zuzentzea dela hartu diren neurrien helburua. Bada, neurri horrek okerreko diagnostikoa hartzen du abiapuntu, lurzoruaren prezioaren eta erabilgarritasunaren arazoa askoz ere konplexuagoa da-eta.

Lurzoria gai ekonomiko urria da, merkatu-funtzionamendu opakua, inperfektua eta ez-kurrentziala duena. Ez dezagun ahatz eskaintza beti singularra eta batzuetan bakarra dela eta hau kontraesanean dagoela edozein neurri liberalizatzailek helburu izan behar duen lehia defendatzeko printzipioarekin. Bestalde, higiezin-produktua aurrezki pribatuaren ondorioz sortzen den inbertsioaren helburu da eta, horrenbestez, are nekezago kontrola daitekeen elementua, merkatuan zurruntasunak sortzen dituena. Ildo honetan, prezioa neurri handi batean egongo da eroslea ordaintzeko prest dagoenaren mende, eta ez lurzoruaren eta eraikitzaileen kostuen mende bakarrik.

...///...

...///...

Dena den, lurzoruaren espekulazio-atxikipenari aurre egiteko gakoa ez datza lurzoru gehiago sailkatzean. Euskadin aski lurzoru sailkatu dago egun dauden eskariei erantzuteko. Funtszko arazoa dagoeneko sailkatuta dagoen lurzoruaren kudeaketan datza eta esku-hartzeak ausartagoa izan beharko luke esparru honetan.

Neurri hauek, gainera, eragin kaltegarria izan lezakete: lurzoru urbanizaezinaren edo urbanizagarri programatuaren eskaria handitu egin liteke legerian lurzoru hauetarako aurreikusitako balioak baino prezio handiagoetan; honen ondorioz garestitu egingo litzateke lurzoru.

E) HIRI ARAUTUA ETA HIRI-HAZKUNDE NEURRIGABEA AURREZ AURRE.

4/2000 Errege Lege Dekretuak aukera ematen die jabeek alde aurretik mugatu gabeko lurzoru urbanizagarria berehala sustatzeko. Honek larriki zalantzan jartzen ditu urbanizazio-ekintzara bideratutako kudeaketa publikoa eta lurzoru-politikak. Hirigintzan bat egiten duten interes publikoak alde batera uzten dira eta botere publikoek oztopo handiak dituzte baliabide natural guztiak, lurraldea barne, arrazionalki erabil daitezten zaintzeko eginkizuna bete ahal izateko. Gauza bat da ekimen pribatua ahal den heinean sustatzea, baina oso bestelakoa da lurzoruaren erabilera partikularren interesen arabera arautzea.

Hiri-hazkunde neurrigabearen aldeko apustu nabarmena egiten da hiri arautuaren kalterako. Hain zuzen ere, lurraldea hiri-eredu bati jarraiki antolatzeko gaitasunik ez duen hirigintza-planifikatzaile baten aldeko apustua egiten da. Haren aukera jabeen esku geratzen da eta botere publikoek ezin dituzte hiriaren hazkunde-baldintzak ezarri eta, honela, iraganen hain esperientzia txarrekoa izan zen hiri neurrigabearen bidea ematen zaio. Beraz, botere publikoek hiriar buruz egin nahiko luketen definizio estrategikoaren aurkako neurriak dira, herritarren borondatea islatzen duen diseinu demokratikoaren ondorio den definizio horren kontrakoak, alegia. Hirigunetik urrun ugartuko diren asentamenduek hainbat zerbitzu, konexio, garraio, azpiegitura eta abar beharko dituzte eta honek azkenean garestitu egingo du etxebizitzaren prezioa (lortu nahi denaren kontrako). Honek guztiak ondorio larriak ekarriko ditu, ingurumenean eta hirigintzan ez ezik, udal-zerbitzu publikoen eraginkortasun, hobekuntza eta kalitatean ere. Azken batean, oztopo handia izango da udalek plangintza estrategikoko neurriak hartzeko eta politika publikoak garatzeko.

Bestalde, mota honetako neurriek eragotzi egingo dituzte prezio eskuragarriko etxebizitzak eskaintzera zuzendutako jarduera publikoak, babes publikoko erregimenpeko etxebizitzak edo alokatzeko etxebizitzak eskaintzera zuzendutakoak batik bat.

F) HIRIGINTZA-ARAUDIAK BEHAR DUEN EGONKORTASUNA.

Lurzoruaren merkatua arautzeko ezinbestekoa da plangintza, kudeaketa eta finantzaketaren arloan epe luzerako estrategia gauzatzea eta, horregatik, egonkortasun handia behar da. Hau ez da, hain zuzen, Euskal Autonomia Erkidegoan azken urteotan gertatu dena.

Udalaren hiri plangintza eta kudeaketako tresnak legegintza-aldaketetara egokitzea prozesu luzea, konplexua eta nekeza da eta, gainera, gure herrian ez dago lurzoru arautzen duen autonomia-erkidegoko lege propiorik. Ildo honetan, adierazi beharra dago gai honetan hartu diren neurriek nabarmenki baldintzatu eta hipotekatuko dutela etorkizuneko Euskal Legean jorratu behar den lurzoruaren erregimena arautzeko ereduari buruzko eztabaida.

...///...



...///...

Aurrez adierazitako guztiaren ondorioz, Euskadiko Udalen Elkartearen (EUDEL) Batzorde Eragileak, Bilbon, 2000ko irailaren 21ean egindako bilkuran,

Udalaren Osoko Bilkurak honako hau:

ERABAKI DU

LEHENENGOA.- Adieraztea udal hau ez dagoela batere ados ekainaren 23ko 4/2000 Errege Lege Dekretuan eta 6/2000 Errege Lege Dekretuan proposatutako neurriekin, toki-autonomiaren printzipioa eta udalei hirigintza-gaietan erreserbatzen zaien eskumen-esparrua urratzen dutelako, lortu nahi dituzten helburuekin kontraesanean daudelako, hirigintza-kudeaketa publikoa zalantzan jartzen dutelako, gai honetan ziurtasun-gabezia juridikoa sortzen dutelako eta gure herriko hiri-ereduan oso eragin handia dutelako.

BIGARRENA.- Euskadiko Udalen Elkarteak (EUDEL) adierazitako dekretuei buruz hartutako erabakiarekin bat egitea, honako puntu hauetan hartu duen konpromisoa bereziki bultzatuz:

- a) Erabaki hau alderdi politikoei eta parlamentuko taldeei igortzea, dagokion lege-proiektuaren parlamentuko izapideak egiten direnean bidezkotzat jotzen dituzten ekimen eta neurriak har ditzaten aurreko puntuan azaldutakoarekin bat.
- b) Beste udalen elkarte batzuekin hitz egitea estatuko administrazioari eskatzeko lurzoru eta etxebizitzaren arloko politikak hartu eta abiarazi baino lehen elkarrizketa-saioa ireki dezan.
- c) Beste udalen elkarte batzuekin koordinatuta, gai honi buruz bidezkotzat jotzen diren ekintza politiko edo legal guztiak aztertu eta bultzatzea.

HIRUGARRENA.- Gure udalerrian bizi-kalitatea hobetzeko lanean jarraitzeko konpromisoa adieraztea, 4/2000 Errege Lege Dekretuan eta 6/2000 Errege Lege Dekretuan ezarritako neurriak hiriaren antolamendu zuzena aurrera eramateko zama astuna izan arren.

LAUGARRENA.- Herritarrei aditzera ematea beldur garena neurri hauen aplikazioak konpondu ezinezko kalteak sor ditzakeelako bai ingurumenean bai udalerrien eguneroko bizitzan eta lurzoru-jabe handiak eta sustatzaile handiak izango direlako onuradun bakarrak, modu honetara beren irabaziak areagotu ahal izango baitituzte espekulazioaren bitartez. Orain Gobernu Espainolak lortu nahi duena bezalako egoera baten ondorioz nahaspila baino aurkitu ez zuten udal demokratikoei hiriak arrazionalizatzeko egindako ahalegina ezerezean utziko dute."

Irastortza zinegotziak (EH) esaten du Lege-Dekretu honen kaltea zalantzan jarri gabe, abstenitu egingo direla eta hau bi arrazoiengatik: 1) lekuz kanpoko eztabaida iruditzen zaielako Espainia eta Frantziako gobernuek har ditzazketen erabakien inguruan eztabaidatzea eta beraiek Euskal Herriak bere osotasunean ardura eta bideragarritasuna bai bere lurralde antolaketa eta bai erabaki batzu hartzeko ahalmenean izan dezanaren aldeko apustu egiten dutela; eta 2) EUDEL aipatzen da eta beraiek uste dutela udal honek Udalbiltzan parte hartzea onartu zuela eta beraz iruditzen zaiela Euskal Herri osoari dagozkien gaiak tratatzeko marko egokia Udalbiltza dela eta EUDEL-en ez daudela Euskal Herriko herri guztiek ordezkaturak.

...///...

...///...

Guzti honen ondoren, Osoko Bilkurak, aldeko 6 botu (EAJ-PNV, EA eta PSE-EE), aurkako boturik gabe eta 3 abstentzioz (EH) EAJ-PNV, EA eta PSE-EEren artean adostutako mozioa onartzea erabakitzen du.

IV.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Irastortza zinegotziak (EH) esaten du Eguneko Gai Zerrenda oso berandu jasotzen dutela, azkeneko hau asteazkenean jaso zuela, atzo, eta oraingo hau badakila akats bat egon dela eta ez dela azkeneko honengatik ari baina orokorrean lehenago banatzeko bideak egin daitezzen eskatuko lukeela.

Alkateak erantzuten dio ahalegindu dela arazoa konpondu dadin.

V.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, gaueko zortziak laurden gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

